



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urriaren 15ean

102 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea etetea (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, lurzatieen edo lurzatiengan dauden eraikinen salerosketa edo trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeari begira eskualdeak mugatzen dituena, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro poligonoaren eta hura gerrarako trebatzeko eremu gisa erabiltzearen aurka dagoela adierazten du, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri eraginkorrak har ditzan basurdeak kontrolatzeko Zaraitzun. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteek adierazpen politiko bat egiten dute kanpo zorra deuseztatzeari buruz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Erretiratu-tako mozioa (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (8. or.).

—Galdera, Arradako Kontzejuko uraren edangarritasunari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina (9. or.).

- Galdera, Mendillorriko bidegurutzean irailaren 1ean egin zen trafiko-kontrolari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina (10. or.).
- Galdera, proiektatutako golf zelaiei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (10. or.).
- Galdera, Feoga-bermea dela-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Kohesio funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Egiturazko funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (12. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Kontuen Ganbarako lehendakariak emandako erabakia, plantilla organikoari kazetari-itzultzaile lanpostu bakar bat eranstea (13. or.).
- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak hautatzeko arauak (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA ETETEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau

aldatzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea etetea, Mahaiak, Nafarroako Gobernuak bidalitako informazioa ikusita, bere tramitazioaren jarraipenarekin erabaki arte.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, lurzatiien edo lurzatietan dauden eraikinen salerosketa edo trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeari begira eskualdeak mugatzen dituen

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak lurzatiien edo lurzatietan dauden eraikinen salerosketa edo trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeari begira eskualdeak mugatzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen.- Lurzatiien edo lurzatietan dauden eraikinen salerosketa edo trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeari begira eskualdeak mugatzen dituen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Foru Lege proposamena,
Lurzatiien edo lurzatietan dauden
eraikinen salerosketa edo trukeetan
lehentasunez erosi eta atzera
eskuratzeko eskubideaz baliatzeari
begira eskualdeak mugatzen dituen**

ZIOEN AZALPENA

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeak aurreikusten du Nafarroako Parlamentuak, foru lege bidez, onar dezakeela lurzatiien eta eraikinen salerosketa eta truke bidezko eskualdaketetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta udalen alde baliatu beharreko eskualdeak mugatzea. Mugatze hori onartzearekin batera, onura publikoko deklarazioa dator, horrela desjabetzapena egin ahal izateko.

Mota horretako neurri baten xedeak, aipatu foru legearen arabera, hauexek dira: zoruaren merkatua arautzea, ondare publikoa sortu edo hedatzea, eta ekipamendu defizitak leuntzea, betiere espirtu eta filosofia bakar baten ildotik, hau da, botere publikoen esku-hartzearen bidez bide ematea zoruak guztien interesarekin bat datorren erabilpena izan dezan, Konstituzioaren 47. artikulua hala ezartzen baitu, eta gizarte eginkizuna bete dezan ahalbidetzea; izan ere, eginkizun hori jabetza eskubidearen edukiak berak hartzen du bere baitan, Konstituzioaren 33. artikuluekin bat.

Logikoa denez, Iruñerrian, lurzatiien edo eraikinen eskualdaketetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatu beharreko eskualdeak mugatzeak eta onura publikoko deklarazioaren bidez eginiko desjabetzeak aurreikusi behar du hiri eta eskualderako eredu integratuaren eredu, non etxebizitza babestuak sartuko

diren hiri bilbadura osoan, eta ez daitezzen, bazter-tuta, eskualdeko zenbait tokitan bildu. Horrela, etxebizitzaren politika publikoa hirigintza garapen osoaren prozesuan sartzea lortuko da.

Hiri eredia ildo horietatik bideratzeko nahitaz-eko da administrazio publikoen esku uztea esku hartzeko tresnak, behar direnak eta behar adina-koak; Iruñean eta Iruñerrian lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideari eta ondorioz-ko desjabetzapenari dagokionez, Nafarroako Gobernua eskubide horietaz etxebizitzetarako kalifikatutako lurzoru osoaren gainean baliatu ahal izatea ahalbideratu beharko da. Horixe da modu bakarra foru administrazioak lan egin dezan bere etxebizitzaren arloko politikan eskualde-esparru harmoniatsu eta orekatua garatzen.

Horrenbestez, foru lege honen ondorioetarako Iruñean eta Iruñerrian mugatzeko proposatzen diren eskualdeak dira toki eta eskualdeko planea-mentuek etxebizitzetarako kalifikaturik dauden guztiak, haien hirigintza planeamenduaren inongo faseri ekin ez diotenak.

Modu horretan, bateragarriak dira toki entitate- en eskumenekiko errespetua –foru legeak toki- eta eskualde-planeamenduan etxebizitzetarako kalifikatuta dauden guneei ukitzen die– eta Nafarroako Gobernuak lurzoru gaitan esku hartzeko duen betebeharra –interes orokorraren babes-bermatu behar du babes ofizialeko etxebizitza nahikoa eginez.

Horrez gain, babeseko etxebizitzaren politika eta eskualdearen osotasuna txertatuta erantzuten zaie modurik egokienean etxebizitzetarako gara-

pen prozesu orok berarekin dakartzan beharrei, ekipamendu nahiz zerbitzu arlokoak.

1. artikulua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 277. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, foru lege honen ondorioetarako eskualde gisa mugatzen da toki eta eskualdeko planeamenduek etxebizitzetarako kalifikaturik dagoen zoru guztia, haren hirigintza planeamenduaren inongo faseri ekin ez dioena.

2. artikulua. Eskualde horretan, lurzatien eta eraikinen salerosketa edo trukearen bidezko eskualdaketetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatu beharko da Foru Komunitateko administrazioaren alde eta, hala denean, dagokion udalaren alde.

Halaber, mugatze hori onartzearekin batera, onura publikoko deklarazioa dator, horrela desjabetzape- na egin ahal izateko.

3. artikulua. Lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz eta desjabetzekoaz baliatzeko epea zortzi urtekoa izanen da.

2. Foru lege honek mugaturiko eskualdean sarturiko lurzoruen hirigintza destinoa da lurzoru- a erreserbatzea, gizarte etxebizitzetarako edo/eta ekipamenduetarako.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale- an argitaratu eta biharamunean hartuko du indar- ra, eta indarrik gabe geldituko da, besterik gabe, aurreikusitako epea iraganik.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro poligonoaren eta hura gerrarako trebatzeko eremu gisa erabiltzearen aurka dagoela adierazten du

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro poligonoaren eta hura gerrarako trebatzeko eremu gisa erabiltzearen aurka dagoela adierazten du".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubiok hurrengo mozioa aurkeztu eta Osoko Bilkuran tramita dadila eskatzen dut.

Zioen azalpena

Estatu Batuetan izaniko atentatu larrien ondorengatik dugun egoera kontuan hartuta, eta ziur asko,

herrialde horretako agintariek iragarritako moduan, gerra erasoak izanen direnez, iritzi publikoan kezka nabarmena sortzen ari da.

Halaber, eta Espainiako estatua NATOko kide denez eta egungo gobernuak babesa ematen dienez Estatu Batuen politika gerrazaleari, kezkatu beharrean gaude, nahitaez, oraindik Nafarroan tiro poligono bat baitugu nafar gehien borondatzen aurka; kezkatu beharrean, izan ere Estatu Batuetako edo NATOko indar armatuentzako entrenamendu leku edo probak egiteko toki gisa erabil baitaiteke tiro poligonoa.

Horrek guztiak areagotu egiten du eskualde horretan ohikoa den kezka, sarritan egiten baitira ariketa militarrik; istripuak gerta daitezke edo Estatu Batuetako indar militarrek egin beharreko probetan arma kutsagarriak erabil daitezke.

Azkenik, eta uste dugunez gerra ez dela bidea gatazkak modu justuan konpontzeko, hurrengo erabaki proposamena aurkeztu dut eztabaida eta bozka dadin:

– Berrito ere Bardeako tiro poligonoaren aurka gaudela adierazten dugu, eta toki hori Estatu Batuetako lehendakariak iragarri duen gerrarako, edo beste edozein gerrarako, entrenamendu leku gisa erabiltzearen aurka.

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Iruñean, 2001eko irailaren 28an

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri eraginkorrek har ditzan basurdeak kontrolatzeko Zaraitzun

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri eraginkorrek har ditzan basurdeak kontrolatzeko Zaraitzun".

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak, 2001eko urriaren 2an

egindako bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko urriaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteez adierazpen politiko bat egiten dute kanpo zorra deuseztatzeari buruz

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, hurren Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteez adierazpen politiko bat egiten dute kanpo zorra deuseztatzeari buruz". Aipatu Parlamentuko taldeak mozioa atzera bidali duela

jakitun dagoela adieraztea. Mozio hori 2001eko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin diot Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura kontseilariari:

Aurten, ekainaren 7an, biltzar honetako erregistroan galdera bat aurkeztu zen “Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak ikergai hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruz”. Galdera horri emaniko erantzuna irailaren 10ean sartu zen biltzarrean. Horri dagokionez, hauek jakin nahi ditut:

Noiz eginen den erantzunean aipatzen den inkesta, zer pertsoneri eginen zaien inkesta, inkesta eginen zaien pertsonen adinak, non eginen diren inkestak, kanpoko lana zer egunetan eginen den eta inkesta hori zer egunetan emanen den.

Zer adjudikazio sistema jarraituko den, bai eta horren baldintzak.

Iruñean, 2001eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Arradako Kontzejuko uraren edangarritasunari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Arradako Kontzejuko uraren edangarritasunari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José Andrés Burguete Torresek, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin diot Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezadan:

Osasun Publikoaren Institutuak abuztuaren 16an emaniko txostenean, edateko txartzat jo zuen Arradako Kontzejuko ur lagina, gaintu egiten baitzituen horretarako ezarrita dauden baldintzak. Halaber, legeek ezartzen dutenez, debekatu egin behar da, horrelako kasuetan, edateko txarra den ura ur-hornidurako sistema publikoaren bitartez banatzea.

Orobat, txostenak aipatzen zuen uraren kalitate bakteriologikoa txarra zela eta kontaminazio fekala atzeman zela.

Oharretan hau adierazten da: “1138/1990 Errege Dekretuan adierazitakoaren arabera,

banatutako urak beti izan behar du hondar-kloro libre edo konbinatua, eta, beraz, etengabe eta egoki emanen zaio kloroa urari, banatutako urak duen kloro libre edo konbinatuaren kopurua 0,2 eta 0,6 ppm bitartean egon dadin.”

2001eko irailaren 11n hartutako laginean ere, ura edateko txarra zela esan zen, uraren kloro maila behar baino handiagoa baitzen eta, 37 gradutan, bakterio aerobikoen kopurua oso handia; uraren uhertasunak, halaber, gehenez onartzen den kontzentrazioa gaintzen zuen.

Horregatik, hauek jakin nahi ditut:

1.- Noiztik diote Osasun Publikoaren Institutuak eginiko txostenek Arradako ura edateko txarra dela gehienezko kontzentrazioak gaintzen dituelako eta kontaminazio fekalak ura uhertzen duelako?

2.- Zer neurri hartzeko eskatu dio Osasun Publikoaren Institutuak Arradako Kontzejuari edateko ur txarraren arazo luze hori konpontzeko?

3.- Bete al ditu Arradako Kontzejuko Osasun Publikoaren Institutuak eskatutako neurriak osasun publikoaren arazo hori konpontzeko?

4.- Arradako Kontzejuko txarra den ura edaten uzteagatik izan al dezake erantzukizun subsidiariorik Osasun Publikoaren Institutuak?

5.- Ba al daki Osasun Publikoaren Institutuak ur hori edan eta zer eragin izaten ari den Arradako biztanleengan?

Iruñean, 2001eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Mendillorriko bidegurutzean irailaren 1ean egin zen trafiko-kontrolari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Mendillorriko bidegurutzean irailaren 1ean egin zen trafiko-kontrolari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José Andrés Burguete Torresek, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoak xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin diot Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezadan:

Irailaren 1ean, iluntzeko 9ak aldera, Foruzaingoak Mendillorriko bidegurutzean kontrola jarri eta Badostaingo sarbideak zuzendu zituen. Gero, foruzainak kontroletik desagertu eta Guardia Zibila droga kontrol arrunta egiten hasi zen. Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

1.- Foruzaingoko buruek agindurik eman al zuten trafiko kontrol bat bertan behera utzi eta Guardia Zibilaren esku uzteko, hark droga kontrola egin zezan?

Iruñean, 2001eko irailaren 27an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Proiektatutako golf zelaiei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak proiektatutako golf zelaiei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubiok andreak, Parla-

mentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoak xedatuaren babesean, ondoko galdera egin diot Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezadan:

1.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak foru erki-degoean zenbat golf zelai dauden proiektatuta edo zenbat proiektatuko diren eta non?

2.- Horietatik zenbatetan du nolabaiteko parte hartzea Nafarroako Gobernuak? Zer motatako parte hartzea da?

Iruñean, 2001eko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Feoga-bermea dela-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspe- nei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Feoga-bermea dela-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrenak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta

hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin diot Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariari idatziz erantzun diezadan:

Estatuak aurreikusi duenez, Europar Batasunetik datozen Feoga-bermeko dirusarrerek –hori da nekazaritza politika komuna aplikatzea ahalbidetzen duen tresna– 6.444,88 milioi euro egingen dute 2002 urtean.

Zein diru kopuru aurreikusi da Nafarroaren kasuan?

Datua laboreko eta abeltzaintza-jarduerako jakin nahi dugu, bai eta zer bilakaera izan duen azken bost urteotan?

Iruñean, 2001eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Kohesio funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurrei- kuspenei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Kohesio funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari

Aierdi Fernández de Barrenak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin diot Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariari idatziz erantzun diezadan:

Estatuak aurreikusi duenez, Europar Batasunetik datozen kohesio funtsen bidezko dirusarre-
rek 1.502,48 milioi euro egingen dute 2002 urtean.

Zein diru kopuru aurreikusi da Nafarroaren kasuan?

Zer jarduketa finantzatuko dira funts horiekin gure erkidegoan?

Iruñean, 2001eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

Egiturazko funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Egiturazko funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrenak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta

hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin diot Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariari idatziz erantzun diezadan:

Estatuak aurreikusi duenez, Europar Batasunetik datozen egitura funtsen bidezko dirusarrerek 6.529,97 milioi euro egingen dute 2002 urtean.

Zein diru kopuru aurreikusi da Nafarroaren kasuan?

Kasu honetan jakin nahi dugu zenbat den funtseko (Feder, FSE, Feoga-orientazioa, IFOP...)

Jakin nahi dugu zer proiektu eta programak jasoko dituzten baliabide horiek.

Iruñean, 2001eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: José Mari Aierdi Fernández de Barrena

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Kontuen Ganbarako lehendakariak emandako erabakia, plantilla organikoari kazetari-itzultzaile lanpostu bakar bat eransteko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganbarako lehendakariak plantilla organikoari kazetari-itzultzaile lanpostu bakar bat eransteko emandako ebazpena ikusita, erabakida:

1. Erabaki horren edukiaz jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Kontuen Ganbarako lehendakariak emandako erabakia, plantilla organikoari kazetari-itzultzaile lanpostu bakar bat eransteko

“Nafarroako Parlamentuaren asmoa izan zen, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen bidez, euskararen erabilera normala eta ofiziala arautzea bizikidetasunaren hainbat arlotan eta hezkuntzaren arloan. Legean zehar, herritarrei aitortzen zaie eskubidea dutela administrazio publikoekiko harremanetan gaztelania edo euskara erabiltzeko eta aukeratutako hizkuntza ofizialean hartuak izateko.

Ondotik, foru legearen markoan, Nafarroako administrazio publikoetan hizkuntza horren erabilera arautu zuen Nafarroako Gobernuak: martxoaren 21eko 70/1994 Foru Dekretuaren bidez lehenbizi, eta aurrekoa indarririk gabe utzi zuen uztailearen 4ko 135/1994 Foru Dekretuaren bidez hurrengo. Horrela, foru erkidegoan, Nafarroako toki administrazioetan eta horiei lotutako zuzenbide publikoko entitateetan euskara sustatu eta erabiltzeko zenbait agindu eta jarduteko zenbait irizpide ezarri ziren.

Arau horiek aplikatuz, Nafarroako Gobernuak, 1995eko abenduaren 18ko erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean hizkuntza-normalizazioa hobetzeko plana onetsi zuen; planaren helburu nagusia zen kanpoko nahiz barneko irudi instituzional elebiduna lor zezala administrazio horrek.

Araudi haren barrenean, garrantzi berezia zuen herritarri eman beharreko zerbitzuen arautzeak, eta, horri begira, “administrazio zirkuitu elebidunak” ezartzen zituen; berrikuntza hori ezarri zen mekanismo egokia zelako zerbitzuak euskaraz modu eraginkorrean emateko; zirkuitu horien kontzeptua eta esparrua, gainera, administrazioa baino zabalagoa zen.

1996ko maiatzaren 28an Kontuen Ganbarako lehendakariak emaniko erabaki baten bidez, erabaki zen arau horiek osagarri moduan aplikatzea Kontuen Ganbaran; horretarako, erakundean administrazio zirkuitu elebiduna sortzeko beharrezko lanpostuak ezarri ziren, zeinetariko batzuk azken urteotan bete baitira.

Orain gutxi, ordea, Nafarroako Gobernuak, abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren eta zenbait jarduketa-planen bidez, aldatu egin du Euskarari buruzko Legea garatzen duen araudia. Foru dekretu horretan, eremu mistoan egon eta herritar guztientzakoak diren Nafarroako administrazio publikoei dagokienez, bi konponbide ezartzen dira bereziki: batetik, aurreko araudiak herritarra hartzeko ezartzen zituen administrazio zirkuitu elebidunen orde, dekretuan euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko unitateak ezarriko direla agertzen da; bestetik, herritarrek zerbitzuak euskaraz eskatuz gero horiek horrela eman ahal izateko neurri neurri osagarriak hartuko direla agertzen da.

Irizpide horiek Kontuen Ganbaran aplikatzeko, erakunde honetan itzulpen zerbitzu bat sortu beharko litzateke, batetik. Hori helburu, eta lehendakaritza honek aurreko apirilaren 9ko erabakian emaniko arrazoiekin bat, dagoen lan zama kontuan izanik, zentzuzkoagoa dirudi Antolamendu

erregelamenduak itzultzaile lanpostuarentzako ezartzen dituen eginkizunak kazetari lanpostuaren eginkizunei gehitzea. Horrela, plantillan lanpostu bakarria sortuko litzateke –kazetari-itzultzailea–, eta bi lanpostu horientzako aurreikusitako eginkizunak eginen lituzke; lanpostu horrek izanen lituzke, baita ere, aipatu diren itzulpeneko unitate administratiboetara esleitutako eginkizunak: interpretazioa eta euskara-gaztelania itzulpen ofizialak.

Bestalde, eta abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren 12.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, Kontuen Ganbarak beste neurri batzuk hartu beharko lituzke norbaitek eskatuta oinarritzko administrazio zerbitzuak euskaraz eman ahal izateko. Kontuen Ganbarak ematen duen zerbitzu nagusia, aurrekoa gogoan, foru erkidegoko entitate publikoen ekonomia- eta finantza-kudeaketa fiskalizatzea da; beraz, neurriek bermatu behar lukete zerbitzu hori euskaraz egin ahal izatea hori horrela eskatzen denean. Ondorioz, Kontuen Ganbarak auditoretzako eta administrazioko langile gaituak behar ditu horretarako, eta orain baditu; horrenbestez, etorkizunean hartu beharreko oinarritzko neurriek bide honetatik abiatu beharko dute: langile horiek lana euskaraz egiteko etengabe prestatu eta gaitzea, bereziki eremu euskalduneko entitate publikoen fiskalizazio lanetarako.

Foru dekretuaren 5. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari lotutako zuzenbide publikoko entitateek, foru dekretuko 1.2 artikuluan aipatu helburuak pixkana-pixkana erdiestera joko duten planak egin eta onetsiko dituzte; eremu mistoari eta administrazioaren zerbitzu nagusiei dagokienez, helburuak hauek dira bereziki: herritarrak euskaraz hartua izatea eskatuta, hori ahalbidetzeko beharrezkoak diren langileak antolatu eta gaitzea.

Kontuen Ganbarak ez du zertan aplikatu foru dekretu hori ezta plan horiek zertan onetsi ere. Hala ere, foru erkidegoan gai horri buruz dagoen arau orokorrekin gutxieneko koherentzia eta homogeneotasuna izatearren, eta erakunde honek bestetan izan duen jokabidearekin bat, Kontuen Ganbarak gainerako administrazio publikoek dituzten antzeko irizpide eta jarduketa-arauak aplikatu behar ditu. Horrela, erabaki honekin nahi dena da Kontuen Ganbararen jarduketa-plana ezarri gai honetan hurrengo urteetarako.

Hori dela eta, Kontuen Ganbarako langileen batzordeari kontsulta egin ondotik,

HAU ERABAKI DUT:

Lehena. Kontuen Ganbarako plantilla organikoan kazetari-itzultzaile lanpostu bakarria ezarriko da; lanpostu horretako langileak, betiere, Kontuen

Ganbarako antolamendu erregelamenduak horietako bakoitzarentzat ezarritako tituluak izan beharko ditu, eta aipatutako erregelamenduak bi lanpostu horiei esleitzen dizkien eginkizunak izanen ditu.

Bigarrena. Kazetari-itzultzaile lanpostuak izanen ditu interpretazio eginkizuna eta euskara-gaztelania nahiz gaztelania-euskara itzulpen ofizialak egiteko eginkizuna –legediak itzulpen ofizialeko unitateentzat ezartzen ditu eginkizun horiek.

Hirugarrena. Abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuak herritar guztientzakoak diren eremu mistoko administrazioentzat ezarritako helburuekin bat, Kontuen Ganbara herritarrak eta erakundeak haiek hautatzen duten hizkuntza ofizialean hartzen saiatuko da; horretarako, neurri egokiak hartuko ditu behar diren langileak euskararen ezagueran eta erabileran trebatzeko, nahi duten herritarrak euskaraz hartuak izan daitezzen. Neurri horiek, funtsean, hauek dira: herritarrek eskubide hori erabili ahal izateko, auditoretzako eta administrazioko langileen euskarazko prestakuntza erraztu eta sustatzea.

Laugarrena. Nafarroako Kontuen Ganbarak plantilla organikoetan ezarriko du zein lanposturako den nahitaezkoa euskara jakitea, bai eta ezarriko ere zenbaterainoko jakintza behar den lanpostu bakoitzean. Kontuen Ganbarak plantilletan ezarri ahal du, halaber, oinarritzko zerbitzu administratiboetako zein lanpostu zehatzetarako hartu behar den euskara merezimendutzat besteak beste, hala lanpostu horretan aritzeko nola lanpostua betetzeko.

Bosgarrena. Lehendakaritza honek espresuki ez erabakitakoetan, eta Parlamentuak gai honi buruzko berariazko araurik ematen ez duen bitartean, Kontuen Ganbarak Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua aplikatu du osagarri moduan.

Seigarrena. Indarrak gabe geldituko da honi buruz orain arte zegoen araua, hots, 1996ko maiatzaren 28an Kontuen Ganbarako lehendakariaren erabakia.

Zazpigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari helaraziko zaio, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dezan; Kontuen Ganbarako Langileen Batzordeari, administratzaileari eta idazkari nagusiari ere jakinaraziko zaie behar diren ondorioak izan ditzan. Lehendakaria, Luis Muñoz Garde. Nik, idazkari nagusi Luis Ordoki Urdazik, fede ematen dut.”

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak hautatzeko arauak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 27.4 artikulua xedatzen du "Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua foru lege honek indarra hartu eta lau hilabeteko epean eratuko dela". Aipatu foru lege hori 2001eko uztailaren 16an argitaratu zen eta, azken xedapenaren arabera, hurrengo egunean, hots, uztailaren 17an, hartu zuen indarra. Hori dela eta, aipatu foru lege horren 23 eta 25. artikuluetan xedatutakoa garatuko duten arauak onetsi behar dira. Arau horien bidez Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bost kideen hautaketa prozedura antolatuta behar da.

Ondorioz, Erregelamenduko 37.1.9. artikulua-rekin bat, hona ERABAKIA:

Lehen.- Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak hautatzeko arauak onartzea. Arau horien testua ondotik ematen dugu:

1go. Nafarroako Gobernuak Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide izendatzeko bost pertsona hautatuko ditu Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearekin bat.

2garren. Betetzeko zenbat postu, hainbat hautagai aurkeztu ahalko du Parlamentuko talde bakoitzak; betiere, aipatu 18/2001 foru legeko 23.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak izan beharko dira.

3garren. Biltzarreko Mahaiari bidalitako idatziz aurkeztuko dituzte hautagaiak Parlamentuko taldeek. Proposatutako hautagaiaren onarpena jaso beharko da idatzian. Proposaturiko hautagaiak 18/2001 foru legeko 25. artikuluan aipatzen den bateraezintasunik ez dutelakoa erabaki ahal izate-

ko, proposamen-idatziei erantsiko zaie aipatu bateraezintasunik ez dutelako aitorpena edo egiaztagiria, hautagaiak egina.

4garren. Parlamentuko taldeek 2001eko urriaren 26ko 12:00ak arte izango dute epea Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko.

5garren. Hautagaien-zerrendak aurkezteko epea bukatu, Mahaiak proposatutako hautagaiak eskatutako baldintzak betetzen ote dituzten kalifikatzeari ekingo dio, eta ondoren, hala bada-gokio, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6garren. Hautagaiak urriaren 30ean Herrilan eta Azpiegitura Batzordeko lan bilera batean agertuko dira parlamentariak haien merezimenduak ezagutu ditzaten.

7garren. Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseiluko bost kideak batera hautatuko dira Biltzarreko Osoko Bilkuran, isilpeko bozketaren bidez.

8garren. Bozketa txartelen bidez egingo da, eta foru parlamentari bakoitzak, zenbat postu bete behar diren, beste hainbeste izen paratu ahalko ditu txartelean.

9garren. Mahaiak botoak zenbatuko ditu eta hautatutzat aldarrikatuko ditu botorik gehien lortu duten bost hautagaiak, baldin eta bakoitzak lortu badu, gutxienez, Biltzarreko kideen bi herenen gehiengoa, hots, hogeita hamahiru boto.

10garren. Proposamena eragingarria izan den edo ez jakiteko erabakigarriak diren berdinketak beste bozketa baten bidez ebatziko dira. Bozketa honetan boto kopuru berbera lortu dutenen artean aukeratuko da. Berdinketak bere hartan segitzen badu, hurrenez hurreneko bozketak egingo dira boto kopuru berbera duten hautagaien artean berdinketa desegiten den arte.

Bigarrena.- Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--